

EUSKALERRIA

GAZTELUGATXE

Orain ille batzuk, bertotik esaten neban, Gaztelugatxe'ko San Juanien baseleiza txarto zainduta egoala.

Danok dakigu ugartea zubi baten bitartez lurrera, lotuta dagoala, eta zubi ori jausteko arrisku aundian egoala. Au da nik esaten nebana.

Gaur oraindiño zubiak zutunik jarraitzen dau. Naiz itxaso aundiak, zein aize indartsuak igaro ordutik ona, zubia ez da jausi.

Baiña ez da zubia idazki onen oiñarria, baseleiza bera baño.

Dakizuen legez, izparringietan irakurriko zenduen eta, euskaldun txar batek, obeto esanda, gizon txar batek, ez dot uste euskalduna izan leitekenik, ez ona ez txarra, sua emon dautso baseleizeari.

Lau ormak baño ez dira galditu zutunik.

Benetan min aundia egin dau gizon txar onek Bermiojko eta Bakiojko jendearen biotz barruan.

Benetan adimen bako eta odol txarreko gizonak izan bear dau, iñori txarrik egiten ez dautson eta on asko egiten dauan gauza bateri sua emoteko.

Siñisten dabenantzako ongarrri bat izan da, eta siñisten ez dabenezat leku eder bat, eta iñori ez dot uste kaltarik egiten eutsunik.

Egia esan, baseleiza au bermiotarra da, baiña santu onen omenez egiten diren jaiak, Bakioin egiten dira: Ekainillairen 24'an San Juan eguna eta Uztaillejren 29'an, San Juan zintzurtako eguna.

Nork ez dau ezagutzen bermiotarrak baseleiza oneri dautsoen oneraspen aundia? Itxas-ontzi barria ataraten danean, ugartearen aurrera ercaten dabe santuaren bedeinkapena artzeko.


Baseleizaren aurrean padarraren (ermitaño) bizilekua egon zan, an padarrak boa eta jatekoa emoten eutsen San Juanjera joaten ziren peregrinoei.

Kondairari apur bat begiratuaz, X'garren gizaldien egiña dala esan bear, eta baseleiza izan baño lan, gaztelua izan zala.

1100'garren urtean prailletxe biurtu zan, eta XIIIgarren gizaldian, jausteko arriskuan egoala ikusirik, bera bota, eta barria egin eben, Au da gugana eldu dan benetako baseleiza.

Iru aldare euki dauz, eta nagusienean, plater batean, Erdi Mendean egindako San Juaneen burua egon da, kristelezko begiak ipiñita.

Bere peregrinazioa egiten etorri zan San Juanjera Santo Domingo de la Calzada, Baita Juan Nuñez de Larairen, Bizkai'ko Jaunaren gordeleku izan zan 30 egunetan, Castilla'ko Alfonso XI'garren erregea beren billa etorri zanean. Baiña berak izenak diñoan legez, Gaztelugatxe, ez zan erreza an goian egoana jatsi arazoteko, eta azkenean erregea beren lurretara joan zan barriz esku utsakaz.



Baiña 1782jko Jorraillajren 29jan Inghaterratik etorritako itxas-lapurrak arrapillatu ebien baseleiza au.

x

Beste gauza bat be ba dago, benetan aipatu leikena.

Asiera batean baseleizea Galdiz mendian egiteko ismoa egoala diño. Baiña besperan egindako lan guztiak, ugartearen gaiñean agertzen ei ziran eguzkiak urtetan ebanean. Lenengo asma, sorgiñen gauzea ei san.

Santuaren gogoa ugarte gaiñean egitea zala ikusirik, ;izonak santuaren gogoa betetu eben.

Au da labur-laburrean kondaira txiki bat.

Ba dagoz beste gauza batzuk, esate baterako, Santua ugartetik eta Bermiora iru pausotan joan ei zan.

Gaur oraindiño ikusi geinkez beren oiñak.

Eta guk oiña sartzen ba dogu, señaile orretan, sekula oiñetako penarik ez dogula eukiko diño esaera saar batek.

Zoritzarrez, orain idatzi dodana, kondaira baño ez da, izana (realidad) beste bat da.

Baseleizako lau ormak baño ez daukaguz, eta negar egiteak ez dau ezertarako balio.

Nork konponduko dau, ainbeste euri, ekaitz eta itxasoko aize gogorak jasan ondoren zutunik jarraitzen izan dauan baseleiza, eta sekula jaio bear ez eban ;izonaren eskuak sua emon dautsen Gaztelugatxejko jan Juan?